



DOCENTIAZ PROGRAMA
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazio programa

Fase esperimentaleko 8. deialdia

**DOCENTIAZ B8 programan parte hartu duten irakasleek
programaren garapenez duten iritzian oinarritutako txostena**

2018ko azaroa

AURKIBIDEA

Orria

1. Sarrera	1
2. Galdetegia erantzun duten irakasleek	3
3. Informazioaren analisisa	5
4. Ondorioak	6
5. Emaitza multzoaren portzentaje banaketa	7

ERANSKINA

Eranskina: Lortutako erantzunak	8
---------------------------------	---

SARRERA

Irakasleen irakaskuntza jarduna ebaluatzeko UPV/EHUk egun duen erreminta dugu DOCENTIAZ, ANECAren DOCENTIA programak ezarritako betebeharrak betetzen dituen.

DOCENTIAZ programa honek irakaskuntza-ikaskuntza kooperatibo eta dinamikoaren eredua du oinarri, ikaslea erdigune eta ardatz delarik.

Zortzigarren deialdi hau fase esperimentalean burutu da eta, horregatik, borondatezkotasunari eutsi dio, beharrezkoa baita ebaluazioaren osagai teknikoak behar bezala gehitzeko eta ebaluazio prozesu hau errazago egin dezakeen konfiantzazko giroa sortuko bada. unibertsitateko kideek programa ezagutu, zabaldu eta baliozta dezaten, Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak (IEZ) argitara eman zuen aurtengo deialdi hau zerbitzuaren web gunean eta, deialdiarekin batera, eskuliburua eta lehenagoko deialdietako helmuga-ebaluazioaren emaitzak eta ANECA-UNIBASQek emandako txostenak. Halaber, jakinaren gainean jarri ziren ikastegietako dekanok eta zuzendariak eta Gobernu Kontseilua.

Deialdia egin baino lehen, formakuntza ikastaroak irakatsi ziren unibertsitateko irakasleei zuzenduak, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak (SAE-HELAZ) kudeatutako UIPRE programaren barruan, unibertsitateko hiru campusetan.

CAMPUSA	HIZKUNTZA	SAIOAK
Araba	Gaztelania	2018ko urtarrilaren 12 eta 19an
Bizkaia	Euskera	2018ko urtarrilaren 10 eta 17an
Gipuzkoa	Euskera	2018ko urtarrilaren 12 eta 19an

Deialdiaren argitapena 2018ko otsailaren 2an izan zen, eta DOCENTIAZ programan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea 2018ko otsailaren 3tik marxoaren 1era izan zen, biak barne.

Autotxostena, funtsezko oinarri dokumentala ebaluatzeko DOCENTIAZ programan, ebaluazio hezigarriaren zerbitzuan tresna baliagarria da, eta bere azken helburua hausnarketa sustatzea da, irakasleen lana zailtzen duten irakaskuntzako alderdiak hautemateko.

Autotxostena ondorengo dimentsioetan dago egituratuta:

- 0. DIMENTSIOA: Irakaskuntza zama eta haren bost faktore zuzentzaileak: talde bakoitzeko ikasle kopurua, eskolak zenbat ikastegitan ematen diren, euskaraz edo ingelesez ematen diren eskolak, irakasgai kopurua eta irakasle berria izatea (ez iraunkorra).
- 1. DIMENTSIOA: Irakasteko eta ikasteko prozesuaren Plangintza eta Garapena.
- 2. DIMENTSIOA: Emaitzak (Arrakasta tasak eta irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestak).
- 3. DIMENTSIOA: Irakasleen garapen profesionala: Irakats lidergoa., Zuzendutako edo gainbegiratutako lan akademikoak, Prestakuntza (jasotakoa eta emandakoa),

Irakaskuntzarekin lotutako berrikuntza eta argitalpenak Goi Hezkuntzan, eta Hedapena.

Irakasleei eskatutako datu gehienak automatikoki deskargatzen dira aplikazio informatikora erakundeen datu-baseetatik: 0. dimentsioari dagozkion datuak, arrakasta tasak, irakasleek eskainitako irakaskuntzari buruzko ikasleen iritzi inkestako emaitzak, zuzendutako edo gainbegiratutako lanak, eta, baldin eta UPV/EHUko datu basean jasota badaude, emandako edo jasotako ikastaroak edo mintegiak, irakaskuntza berrikuntzarako proiektuetan izandako parte-hartzea, etab.

Txosten honetan jaso da DOCENTIAZ programan borondatez parte hartu duten irakasleen iritzia, programa honen zortzigarren deialdian. Irakaslana Ebaluatze Zerbitsuak (IEZ) galdetegi bat igorri zuen 2017ko uztailaren 17an, hau betetzeko epea irailaren 15an amaitzen zena. Irakasleek telematikoki erantzun zuten eta modu anonimoan "*encuestafácil*" plataformaren bidez. Esan behar da galdetegia bidali zela Irakaslana Ebaluatze Unibertsitateko Batzordeak (IEUB) ebaluazioaren inguruan egindako azken txostena jaso baino lehen.

Galdera sortak Likert erako neurketa eskala bat du, atal irekiekin eta lau bloke tematikotan banatzen diren 12 galderak ditu:

- 1) Testuingurua zehazteko itaunak (1-2 galderak).
- 2) DOCENTIAZ programaren funtsezko edukari buruzko itaunak (3-7 galderak).
- 3) DOCENTIAZ programara aurkezteko norberaren motibazioari buruzko itaunak (8-9 galderak).
- 4) Irakaslana Ebaluatze Zerbitsuaren (SED/IEZ) funtzionamenduari buruzko galdera (SED/IEZ) (10. galdera).
- 5) zortzigarren deialdi honekiko asebetetze orokorrari buruzko itaunak (11 galdera).
- 6) DOCENTIAZ programaren balioespen orokorrari eta bere garapenari buruzko galdera irekia (12. galdera).

GALDETEGIA ERANTZUN DUTEN IRAKASLEAK

Guztira 295 irakasleri egin zitzairen galdera-sorta betetzeko gonbita; horietatik 153k bete zuten, hau da, populazioaren %51,86k erantzun zieten galderari.


1. taulak, 1. irudiarekin batera galdetegiaren 1 eta 2. galderari dagozkien emaitzak biltzen dituzte hurrenez hurren. Lehenengoan, zortzigarren deialdi honetan parte hartu zuten UPV/EHUko ikastegi bakoitzean lortutako erantzun kopurua ikus daiteke; bigarreanean, ordea, irakasleei dagokien jakintza arloaren arabera erantzun kopurua.

1. taula. Ikastegien arabera emaitzak

125. Facultad de Farmacia	9	6%
127. Unidad Docente de la F. de Medicina y Enfermería en Vitoria-Gasteiz	1	1%
130. Facultad de Letras	9	6%
135. Facultad de Educación y Deporte. Sección Ciencias de la Actividad Física y del Deporte	0	0%
151. Facultad de Economía y Empresa. Sección Álava	3	2%
154. Facultad de Educación y Deporte	2	1%
160. Facultad de Relaciones Laborales y Trabajo Social. Sección Álava	1	1%
163. Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz	4	3%
215. Facultad de Ciencias Químicas	3	2%
224. Facultad de Derecho	2	1%
226. Facultad de Informática	4	3%
227. Unidad Docente de la F. de Medicina y Enfermería en Donostia-San Sebastián	1	1%
230. Facultad de Educación, Filosofía y Antropología	7	5%
231. Facultad de Psicología	4	3%
240. Escuela Técnica Superior de Arquitectura	3	2%
251. Facultad de Economía y Empresa. Sección Gipuzkoa	4	3%
252. Facultad de Medicina y Enfermería. Sección Gipuzkoa	1	1%
254. Facultad de Educación, Filosofía y Antropología	7	5%
263. Escuela de Ingeniería de Gipuzkoa	7	5%
264. Escuela de Ingeniería de Gipuzkoa. Sección Eibar	3	2%
310. Facultad de Ciencia y Tecnología	13	8%
320. Facultad de Bellas Artes	6	4%
321. Facultad de Economía y Empresa	14	9%
323. Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación	4	3%
324. Facultad de Derecho. Sección Bizkaia	4	3%
327. Facultad de Medicina y Enfermería	4	3%
328. Unidad Docente de la Facultad de Medicina y Enfermería en Basurto	0	0%
329. Unidad Docente de la Facultad de Medicina y Enfermería en Cruces	0	0%
345. Escuela de Ingeniería de Bilbao	8	5%
350. Escuela de Ingeniería de Bilbao	2	1%
351. Facultad de Economía y Empresa. Sección Elcano	0	0%
352. Facultad de Medicina y Enfermería	3	2%
354. Facultad de Educación de Bilbao	15	10%
356. Facultad de Relaciones Laborales y Trabajo Social	0	0%
363. Escuela de Ingeniería de Bilbao	4	3%
364. Escuela de Ingeniería de Bilbao	1	1%
410. Aula de la Experiencia de Alava	0	0%

420. Aula de la Experiencia de Gipuzkoa	0	0%
430. Aula de la Experiencia de Bizkaia	0	0%
Jasotako erantzunak	153	100%

1. Irudia. Jakintza arloen arabera emaitzak



INFORMAZIOAREN ANALISIA

Parte-hartzearen baloreak (aurreko tabla eta irudia) eta jasotako iritziaren emaitzak (jarraitzen duten lerroetan aipamen laburra) positibotzak har daitezke, orokorrean, joan den deialdiaren emaitzetatik hurbil gogobetasuraren maila izanik.

Emaitzen analisiari helduta, DOCENTIAZ programa honela ikusten dute zortzigarren deialdi honetako irakasleek:

- Hezigarria (%73 dago gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados)
- Beharrezkoa (%72 dago gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados)
- Egokia (%70 dago gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados)

Ebaluaziorako protokoloari oso lagungarri deritzote autotxostena egiteko orduan, baita programa gardentzat kalifikatze aldera oinarria ere.

Irakasleek zortzigarren deialdi honetan borondatez parte hartzeko izan dituzten arazoiez hitz eginez, honako hauek lirateke:

- %64k uste du DOCENTIAZ programak balio duela irakaskuntza jardueran hobetu beharreko alderdiak detektatzeko.
- %88k uste du eginbeharretako bat dela irakaslana ebaluatzea, ikerketa ebaluatzen zaion bezala.
- %78k uste du balioko duela bere irakaslanaren aitortpena lortzeko.
- %81k azpimarratzen du ikastegi, saile edo beste unibertsitateko erakunde batzuen onerako egin dutela (ikastegiko kalitate erakuslea, dekanotzaren proposamena, eta abar)
- %82k azpimarratzen du irakasleen akreditazioaren prozesuetan daukadan ondorioa, oposaketetan, lan poltsetan, ANECA, UNIBASQ, JAP deialdietan, aparteko ordainsari osagarriak eta abar.

Bestalde, DOCENTIAZ programan parte hartzeko beste arazo batzuk dira: UPV/EHUko beste barruko deialdi batzuetan egiaztapena baldintzatzat edo merezimendutzat hartzea (HBP); bere burua bigarren aldiz aurkeztuz ebaluazio prosedurari jarraipena emate aldera, behin 5 urte bete ondoren lehenengo egiaztapena lortu zenetik eta ikusteko lortutako hobekuntza; egiten den irakaslanari buruzko beste ikuspuntu desberdin bat edukitzea; hobekuntza jarraituaren bilaketa; lankideen aholkua.

Irakaslana Ebaluatze Zerbitzuaren balorazioari dagokionez, jasotako erantzunen %95k adierazi zuen IEZak emandako atentzioari buruzko gogobetetze indize handia.

Azkenik, nabarmentzekoa da irakasleen %76 asebetarik dagoela DOCENTIAZ programaren zortzigarren deialdian parte hartu izanagatik (gutxi gorabehera ados: %21 nahiko ados: %30 eta erabat ados: %25).

ONDORIOAK

UPV/EHUren Docentiaz programa modu jarraituan ezarri da zortzi deialdi esperimentaletan zehar, erreferentziazko programa bilakatu da UPV/EHUko irakasleentzat, irakaskuntza lana ebaluatzeko erreminta gisa, ikasleak gune eta ardatz dituen ikaskuntza-irakaskuntzarako eredu kooperatibo eta dinamikoa oinarri hartuta.

Bere aldetik, zortzigarren deialdi honetan parte hartu duten irakasleei aplikatutako inkestak honako datu hauek eman ditu: gehiengo bat asebetarik dago parte hartu izanagatik, irakasleek DOCENTIAZ programa hezigarri, beharrezko eta egokia dela pentsatzen dute. Ados agertzen dira, era berean, hiru informazio iturri erabiltzearekin: irakasleak, ikasleak eta ikastegietako kalitate batzordeak.

Zortzigarren deialdi honetan, ebaluazio protokoloak izugarri lagundu du autotxostena betetzeko eginkizunean, programaren adierazle bakoitzari emandako puntuazioak alde aurretik jakinda, halere hurrengo deialdietan areago lan egingo da protokoloaren edukia hobetze aldera.

Irakasleek programa honetan borondatez parte hartzeko dituzten arrazoiek norberaren aitortza, irakaskuntza hobetzea eta beren irakaslanaren ebaluazioaren jarraipenean interesa dute helburu.

Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak emandako arreta positiboki oso baloratzen da.

Docentiaz programan parte-hartzearekin gogobete argia hautematen da, eta susmatzen hasten da Docentiaz Programa, unibertsitateko irakasleen ebaluazioan kalitatea bultzatzen duena, nahitezko izaera eduki behar izango lukeela Unibertsitatean.

EMAITZA MULTZOAREN PORTZENTAJE BANAKETA-

Barra grafiko honek galdera bakoitzarekin bildutako **erantzun-multzoaren portzentaje banaketa** hartzen du:






Eranskina: LORTUTAKO ERANTZUNAK

Galdera bakoitzeko grafiko bat dago; bertan, eskalako balio bakoitzeko erantzun kopurua ikus daiteke. Horrez gain, batezbestekoa, konfiantza tartea, laginaren tamaina eta, amaitzeko, desbiderapen tipikoa eta errore estandarra daude irudikatuta. "Ondorio nagusiak" atalean, aukeratutako erantzunen portzentajeak ikus daitezke.

Horrez gain, atal irekia duten galderetan, bildutako erantzun multzoaren laburpen bat agertzen da. Adierazpen bakoitzaren ondoan horren agerpen maiztasuna dago adierazita, parentesi artean. Azterketa kualitatiboan eta ondorengo kategorizazioan, gutxienez bi aldiz agertzen diren iritziak hartu ditugu kontuan.

3. itema.- DOCENTIAZ programa:



Analisisa teknikoao - Populazioa:

131

Hezigarria da, irakasleentzat gidari izan baitaiteke irakaslanako ondo egiteko		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3	"%58" k aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 3]	Gutxi gorabehera ados nago
Laginaren tamaina	131	Nahiko ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxiene aukeratutako erantzuna "%13":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados
Beharrezkoa da, irakaslanari garrantzia ematen baitio		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3	"%51" ek aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	131	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxiene aukeratutako erantzuna "%8":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados
Egokia da akreditazio akademikarako		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3	"%50" ek aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	131	Ez nago nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxiene aukeratutako erantzuna "%9":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados

4. itema.- Adierazi autotxostena egitean izan duzun zailtasun bat:


Item honi dagozkion erantzunak tratatzeko, saiatu da kategorizazioa egiten jasotako erantzunen (129) edukiaren antzekotasunean arreta jarrita, erantzunik adierazgarrienak berresanez eta kopuru osoa kuantifikatuz beltzez nabarmendutako edukiari dagokionez, kategoriaren izenburu orokor gisa.

- **Aplikazio informatikoa(20):** Aplikatiboa erabiltzeko zailtasuna; Meritoak adierazteko leku eskasa; plataformara igo behar diren dokumentuak ezin dira izan oso handiak.
- **Dokumentazioaren pilaketa(12):.**
- **Ikasleen gida(4):** Baldintza gehiegi ikasle egida egiteko; ez dago oso argi ikasle gida zere den.
- **Denbora(9):** Denbora asko eskatzen du; neurrigabeko lana.
- **DOCENTIAZ programaren ulermen orokorra(16):** Zer eskatzen den eta nola justifikatu behar den ulertzeko zailtasuna; erabilitako terminologia oso artifiziala da.
- **Merezimenduak(7):** Irakaskuntza merezimenduak kategoria egokietan sailkatzeko zailtasuna.
- **Programaren ezjakintasuna(7):** Gida eta heziketa falta izan dira ebaluaketa egiteko, entregatu baino lehen egon zitekeen akatsak zuzunetzeko; epeen ezaguera.
- **Autotxostena(2):** Irakasgaiaren hautaketa.
- **Ez da egon zailtasunik (22).**
- **Beste batzuk(11):** UNIBASOeko akreditazioa eskatzeko epeak aldi berean izan dira; irispide didaktikoak ez dira egokiak; ebaluatzen dena ez dator bat irakasleen errealitatearekin., .Ebaluatze protokoloan nabarmentzen diren gidalerroak praktikara eramateko ezintasuna; irakaskuntzarik aldedi adierazgarrienak ez dira baloratzen; burokratikoak; hausnarketa egiteko denboraren gabezia; arrakasta tasei emandako pisu handia.

5. itema.- Adierazi zenbat denbora eman dituzun autotxostena egiten (ordutan):


<ul style="list-style-type: none"> ✓ 5 ordu baino gutxiago (12) ✓ 5-9 ordu bitartean (28) ✓ 10-14 ordu bitartean(14) ✓ 15-19 ordu bitartean(12) ✓ 20-24 ordu bitartean(17) 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ 25-29 ordu bitartean(4) ✓ 30-34 ordu bitartean(15) ✓ 35-49 ordu bitartean(6) ✓ 50-99 ordu bitartean(5) ✓ 100 ordu (1)
Batezbestekoa: 18 ordu	

6. itema - Ebaluaziorako protokoloa lagungarria izan da autotxostena egiteko:




Analisia teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4	"%68" k aukertu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	129	Gutxi gorabehera ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako aukera adierazten du "%5":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados

7. itema.- Protokoloan emandako informazioagatik, programaren ebaluazioa gardena da:



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3	"%64" k aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 3]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	129	Gutxi gorabehera ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukertutako aukera adierazten du "%9":
Error estandar	0	Ez nago batere ados

8. itema.- DOCENTIAZ programan parte hartu dut, zeren:



Analisis teknikoa - Populazioa:


129

Uste baitut lagundu egingo didala ikusten zer hobetu dezakedan nire irakasle lanean		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3	"%54" k aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 3]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	129	Gutxi gorabehera ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako aukera "%10":
Errore estandarra	0	Erabat ados nago
Uste baitut nire eginbeharretako bat dela irakaslan ebaluatzea, ikerketa ebaluatzen zaidan bezala		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4	"%67" k aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	129	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako aukera "%5":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados
Uste baitut balioko duela nire irakaslan aintzat hartzeko		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3	"%54" k aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	129	Gutxi gorabehera ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako aukera "%10":
Errore estandarra	0	Ez nago ados
Ikastegi, sail eta beste unibertsitate-erakundeen onerako (ikastegiko kalitatearen adierazlea, dekanotzaren proposamena, etab.)		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4	"%59" k aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	129	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako aukera "%9":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados
Irakaslearen akreditazio prozesuetan eragina, oposizioak, lan-poltsak, ANECA, UNIBASQ, JAP, EUSKOTRAMOAK, etab.)		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4	"%69" k aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	129	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako aukera "%9":
Errore estandarra	0	Ez nago ados

9. itema.- Adierazi izan duzun beste arrazoiren bat DOCENTIAZ programan parte hartzeko:


- Hobekuntza jarraituaren bilaketa , curriculumaren hobekuntza, metodologia aktiboan sakontzea (23).
- Aurretiko baldintza, HBPK lortzea eta GAITUZ, DOITU eta IKDen parte hartzea errazten duena (6).
- Docentiaz programan lortutako lehenengo egiaztapenarekin hasitako ibilera jarraitzea, bigarren aldia da (5).
- Ebaluaketa lanaren alde nabarmenenak ezagutzea(3)

10. itema.- Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuko (IEZ) langileek behar bezala erantzun diete egindako galderai:



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4	"%70"k aukertau zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	129	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukertutako aukera "%2":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados

11. itema.- Pozik nago DOCENTIAZ programaren zortzigarren deialdian parte hartu dudalako:



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3	"%55"ek aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	129	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratuta aukera "%9":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados

12. itema.- Programari edo zortzigarren deialdi experimental honi buruzko iruzkinik egin nahi baduzu, idatzi beheko laukian

Jarraian, ítem honi erantzunak aurkezten dira, beren edukiaren antzekotasunari begira:

Programa orokorrean:

- Argibide argiak, eta izen-ematea espero baino errazagoa.
- Adierazleen koherentzia eta gardentasun handiagoa, eta, beraz, txostena igortzean ere.
- Aplikazio informatikoaren sinplifikatzea, eta bere funtzionamenduaren hobekuntza.
- Ebaluzioa oso zorrotza eta osoa da. Oso zaila da aldeko balorazioa lortzea, ikerketarako denbora behar delako, eta honek iraskaskuntzari denbora keitzen diolako, eta alderantziz. Oso zaila da arlo guztietan trebea izatea. Etsigarria da norberak gauzak ahalik eta hoberen egiten saiatzen denean. Danak dira ostopoak bidean.
- Prozesua hasi, eta txostena jaso arteko denbora oso luzea da.
- Lehenengo deialdian, eta azkenengo honetan baita ere parte hartu dut, eta hobekuntza nabarmena eta benetan ona izan da. Azkenengo honetan, faltan igarri dudana hau da; egoera pertsonalak ere kontutan hartzea, osasuna adibidez.
- Aurkeztu nintzen lehenengo deialdiarekin aldentuz, askoz errazagoa iruditu zait. Oso gustokoa izan dut txostena jasotzea. Emaitzei buruzko hausnarketa on bat ematen du.
- Datorren urteko kurtsoari begira, jaso ditudan gomendioak oso lagungarriak izan dira.
- Oso interesgarria da irakasleen lana baloratzeko modu bat egotea, DOCENTIAZ programak egiten duen modura. Dena dela, ez nago batere ados akreditatzeko, ikerketa lana irakasle lana baino gehiago balio izatea. Ikertzaile izatearen gainetik irakasle onak izan beharko ginateke, honengatik akreditaziorako DOCENTIAZ (edo antzeko irakasle ebaluazioak) gutxienez %50a balio beharko luke.
- Ebaluazio zorrotz samarra.
- Oso ongi daude azalpen tailerrak baina plataforma oso neketsua da eta nire pertzepzioa izan da zenbat eta estrategagoa izan orduan eta emaitza hobekoak izan ditzazkezula eta horrek ez du inolaz ere neurtzen gure gaitasuna irakasle bezala. Bestalde zenbakiak bizitzako ñabardurak estaltzen dituzte eta beste 'neurgailu' kualitatibo erabiltzea ongi legokeela.
- Beharrezkoa da Docentiaz bitan egin eta emaitza onak lortu ditugun irakasleentzat nolako formula erabili behar den erabakitzea. Bitan egin ondoren, hirugarrenean eskema berdinarekin jarraitzea apur bat errepikakorra izan daiteke, eta hobekuntzarako jadanik eraginik ez luke izango
- Ebaluatzen diren 5 urteak aukeratu ahal izatea ondo legoke tarteko urteren ez bada lanik egin.
- Planteatzen den txostenaren eta batez ere jardueraren ebaluazioaren inguruan nola ebaluatzen den argiago jakitea komeni dela iruditzen zait. bestalde ikerketa atalak garrantzi gehiegi duela iruditzen zait, azken finean irakaslanaz ari bagara, ba hori hartu beharko litzateke haintzat nabarmenago.

Docentiaz programaren karakterea:

- Derrigorrezkoa izan beharko luke.

Ikaslearen gidak (1. Dimentsioa):

- Ikaskuntza lan BAT aurkeztu beharra, ez dakit egokiena den.
- Argi adierazi dadila zein hizkuntzatan burutu daitekeen lana (esaterako, ingelesez diren irakasgaien materiala ingelesez bai ala ez).

Arrakasta tasak eta Ikasleeen duten iritzia (2. Dimentsioa)

- Ikasleek emandako baliospenak, nolabait erlatibizatu beharko liriateke, adibidez, honako hauek kontutan hartuz; irakaskuntza ordutegia, ikasleen kopurua, ikasgai mota...
- Irakasle bakar baten lana balioztatzea. Ikasle taldea, beste irakasle batekin partekatzen bada, irakasle batek izandako jokabidak, ez dezala eragin bestearengan.
- Aurreko deialditik hona asko hobetu dut puntuazioa (100 ulertu dut), baina Gradu ikasleen gogobetze maila asko jeitsi da ERAGIN eta DOITU egin ditudanetik. Horregatik ez dut Bikain jaso. Ez dakit zenbaterarte den garrantzitsua ikasleek ondo baloratzea irakaslearen lana. Docentiaz-eko txostena jaso ondoren aspektu honetan zer egin dezakedan jasotzea faltan bota dut. Teorian nire irakaskuntza primeran dago planteatua, ikasle gehienek gaituzten dute nire ikasgaia, orduan? Honi buruz jende askorekin hitz egin dut baina inork ez dit ezer esaten. Ikasleek klase magistralak eskatzen dizkirate. Bestetik, IKD jarraitzen dudanutik, ikasleek egiten duten lanen maila asko jeitsi dela iruditzen zait. Zalantza asko ditut.

Meritoak (3. Dimentsioa):

- Interesgarria izango litzateke, lehenengo ebaluazioan, azkenengo 5 urte baino lehenagokoak diren merituak aurkeztu ahal izatea.
- Hirugarren dimentsioari balore gehiegi ematen zaio, %30, eta bigarrenari gutxiegi, %20. Nire ustez, bigarren dimentsioan ikusten da benetan ikasleak pozik dauden edo ez gure irakaskuntzarekin, eta beraz, hor ikusten da benetan ongi edo gaizki planteatu dugun gure irakasgaia. Nire ustez, dimentsio honek %40 balio behar luke.

Ekintza hezigarrien antolaketa:

- UIPREk eskeintzen dituen ikastaroen gain, DOCENTIAZekin ahalik eta hoberen betetzeko berariazko heziketa eskeintzea, ikasgaiari buruz hausnarketa egitera laguntzen duen programa dela uste dut eta.
- Unibertsitatean jasotako prestakuntzari, garrantzi handiegia ematen zaiola uste dut.
- Programak gehiegi azpimarratzen du paperetan agertzen dena, burokrazia. Irakaskuntza lana hobetu nahi badugu, egin beharko duguna, emaitzak eskatzeaz gain, irakasleak hobe trebatzea da. Zentsu honetan, zerbait egiten ari da dagoeneko Unibertsitatea, prestakuntza-jarduerak bezala, baina ez dira nahikoak, matrikulak gutxi direlako, eta jende asko kanpoan geratzen da. Honetaz aparte, formakuntza erakundeatu behar da, gure egunerokoan barneratu, eta ez dadila urteroko ikastaro pare batera mugatu. Irakasle gazteentzat mentoring programak, irakasleen arteko

hartu-emanak, puntako unibertsitateen benchmarkinga...izan daitezke proposamen batzuk.

- Protokoloa betetzeko espresuki egin den tailerra oso lagungarria izan da.
- Irakasle batekin banakako tutoretzak eskertuko nukeen.

Kategorien balorazio berria:

- Arraroa da deialdi batean, puntuazio osoaren %90a gainditzea nahikoa izatea bikaintasuna lortzeko, eta, beste deialdi batean, baldintza izatea puntuazio hori lortzea dimetsio bakoitzean.
- Uste dut BIKAIN ateratzeko irizpideak gehiegizkoak direla, azpiatal guztietan bikain atera behar baita.
- Nahiz eta formakuntza-ikastaro asko egin eta lana ondo egin, ia ezinezkoa da bikaintasuna lortzea. Horrek ez du jendea prestakuntzara motibatzen.
- Ez nekien beharrezkoa zenik azpidimentsio bakoitzean bikaina lortzea, balorazio orokorra bikaina izateko. Uste dut 90 puntu baino gehiagoko puntuazioa bikaina izan beharko lukeela.

Besteak:

- Oso ongi planteaturiko programa da. Agian, ebaluatzaileek gai espezifikoak hobeto ezagutu beharko lituzkete.
- Uste dut prozedura zuzenduta dagoela bere jarduera profesionala, batez ere Unibertsitatean egiten dutenentzat, eta ez unibertsitateko lana, bere jarduera profesionalaren zati txiki bat den irakasleentzat, irasle elkartuak baitgara.
- Nire ustez, Docentiaz enaitzek eragin gehiago izan beharko lukete beste hainbat prozesutan. Adibidez, osagarriak jasotzeko aurkeztu nintzen azken deialdian, bi ikerketa seiurtekoak izateak, "ikerketa" saileko atal garrantzizueneko puntuazio osoa suposatzen zuen. "Irakaskuntza" atalean, alderantziz, ez zen kontuan hartzen Docentiaz programan, bi aldiz bikaintasuna lortu izana. Izan ere, atal honetan lortutako puntuazioa oso baxua zen, nahiz eta Docentiaz en bikaintasuna lortu izana.
- Ez dut ulertzen zergatik aintzat hartzen den ikasgaien koordinakuntza, solik irakasle zenbaki jakin batetik aurrera. Argi dago lan hori pertsona batek bakarrik egin dezakeela, eta ez da praktikoa urtero koordinatzailea aldatzea.